

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

DURANGOKO EUSKARAREN UDAL KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

ATARIKOA

Araudi honekin martxan jartzen dugu Durangoko Euskararen Udal Kontseilu berria, Durangoko Udalaren solaskide baliotsua izango dena euskararen inguruko politikei dagokienez.

Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea onetsi zenetik, herri administrazioek ez ezik, gizarte eragileek ere pauso garrantzitsuak eman dituzte gure herrian euskararen normalizazioa bideratzeko.


Beste alde batetik, 1998 uztailaren 28an, Eusko Jaurlaritzak EBPN Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onetsi zuen. Plana Euskal Autonomi Erkidegoko udal Administrazioetako hizkuntza normalizaziorako prozesuak planifikatzeko tresna gisa diseinatuta dago eta euskararen erabilera bultzatzea, belaunaldien arteko transmisioa bermatzea eta hizkuntzaren kalitatea bermatzea dira bere helburu nagusiak.

Zentzu horretan, Durangoko Udalaren eginkizuna euskara eta gaztelania aukera berdintasunean garatu daitezen, benetako elebitasuna lortu eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzea da. Horretarako, hizkuntza politiken koordinazioa hobetzea eta, erakundeen jardura bultzatze aldera, gizarte eragileen inplikazioa lortzea izango da erabili beharreko filosofia, eta ahalegin hori bat dator herriari dagozkion eztabaida eta erabakietan herritarren parte hartzea

2010eko uztailaren 20an udaleko osoko bilkurak euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal araudia onartu zuen.

Udaleko osoko bilkurak, 2013ko otsailaren 26an, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu zuen.

Aipatutako araudiek aurreikusten dutena aplikatuz, Durangoko Udalak behar beharrezko iritzi dio Euskararen Udal Kontseilu berria eratzeari.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA: IZAERA

- 1.1. Euskararen Udal Kontseilua kide anitzeko organo aholku-emailea eta informatzailea da, Durangoko Udalari Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzorde Informatiboaren bitartez atxikia. Organo aholku-emaile eta eztabaidatzaile hau udalerrian hizkuntza normalizazioan diharduten talde, elkarte, erakunde publiko eta pribatu eta pertsona fisikoen ordezkarien harreman-organoa izango da.
- 1.2. Arautegi honek eta aplikagarri diren gainerako xedapenek zuzenduko dute kontseilua.
- 1.3. Kontseilua ez da Udal Korporazioaren menpe egongo eta autonomia funtzionala izango du.


II. KAPITULUA: FUNTZIOAK

2. ARTIKULUA: FUNTZIOAK

- 2.1. Aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortzeko, Kontseiluak funtzio hauek beteko ditu:
 - a) Durangoko euskararen plan estrategikoak diseinatzeko eta garatzeko laguntza eta aholkularitza ematea.
 - b) Plan estrategikoaren urteko kudeaketa planaren diseinuan eta jarraipenean parte hartzea.
 - c) Oro har, Euskara Batzorde Informatiboaren eskariari jarraituz, Durangoko udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertzea.

Egokitzen joan gero, Euskararen Aholku Kontseiluak lantaldeak era ditzake helburu estrategikoei loturik, edo sor litezkeen egoerei aurre egiteko. Halaber, euskara erakunde eta elkarten ordezkariak ere joan ahal izango dira bileretara, Presidenteak gonbidatuta, baldin eta Euskararen Aholku Kontseilura joateko interesa erakutsi badute eta bere presentzia baliagarria bada unean aztertu behar diren gaietan duten esperientziagatik. Gonbidatu horiek ez dira izango Kontseiluko eskubide osoko kideak Kontseilua eratzeko quorumari, gehiengoei eta bozketei dagokienean.

- 2.2. Euskararen Udal Kontseiluaren funtzioak honela beteko dira: txostenak, irizpenak, proposamenak eta eskariak eginez udaleko gobernu organoei.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

III. KAPITULUA: KONTSEILUAREN OSAKETA

3. ARTIKULUA: OSAKETA

3.1. Hauek izango dira eskubide osoko kideak Euskararen Udal Kontseiluan:


Euskararen sustapenean diharduten pertsona fisikoak zein juridikoak. Hau da, udalerrian hizkuntza normalizazioan eragiten duten esparruetan dihardutenak: euskara elkarteak, euskalduntze-alfabetatze arloko erakundeak, ikastetxeak, guraso elkarteak, kultura, aisialdi edo kirol elkarteak, merkataritza eta ostalaritza elkarteak, enpresen ordezkariak, komunikabideak, e.a. Halaber, euskalgintzan esanguratsuak diren gizon-emakumeak. Gehienez 20 kide izango dira, eta gutxienez 8.

a) Pertsona juridikoek (elkarte, erakunde edota fundazioek) baldintzak hauek bete beharko dituzte:

1. Legez eratuta egotea eta dagozkien erregistroetan izena emanda egotea.
2. Estatutuak Durangon helbideratuta izatea edo delegazio ofizial bat edukitzea Durangon.
3. Euskara bultzatzeko jarduerak egiten dituztela ziurtatzea.
4. Irabazi-asmorik ez edukitzea, eta bere barruko egitura eta funtzionamendurako erregimena demokratikoak izatea, indarrean dagoen legediaren arabera.
5. Elkarte, erakunde edota fundazioek ordezkari bana eta ordezkoa izendatuko dute, ahots eta botoarekin.
6. Elkarteetako ordezkariak bermatuko dute euskaraz aritzeko gaitasuna dutela.

b) Pertsona fisikoek euskararen aldeko ekimenak egingo dituzte, irabazi asmorik gabe, eta gaiarekiko interes iraunkorra erakutsiz.

1. Pertsona juridiko zein fisikoek ordezkari bana eta ordezkoa izendatuko dute. Ordezkariak ahotsa eta botoa emateko eskubidea izango dute.
2. Pertsona fisikoek bermatuko dute euskaraz aritzeko gaitasuna dutela.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

3.2. Parte tekniko instituzionalen aldetik hauexek izango dira Kontseiluko kide:

- a) Kultura arloko zinegotzia, ahotsarekin eta botoarekin. Presidente lana egingo du, alkateak hala izendatu eta gero.
- b) Udaleko talde bakoitzeko ordezkari bat. Udaleko talde politikoek pertsona delegatua izendatu dezakete eta halaxe jakinaraziko diote Kontseiluko idazkariari. Halaber, titular bakoitzeko ordezeko bat ere izendatu dezakete. Kideen izendapena alkateak egingo du talde bakoitzaren proposamena jaso eta gero. Ordezkariek ahotsa izango dute, baina botorik ez.
- c) Udal taldeek bermatuko dute euren ordezkariak euskaraz aritzeko gaitasuna dutela.
- d) Euskara saileko teknikaria, Kontseiluko idazkari lana egingo duena. Udaleko dinamizatzailea eta trebatzailea ere joan daitezke bileretara aztertzen diren gaiak hala eskatzen badute. Guztiek izango dute ahotsa, baina botorik ez.

3.3. Durangoko Euskararen Udal Kontseiluak euskararen normalizazioan dabilzan pertsona adituak deitu ditzake gai zehatz eta bereziak aztertzeko eta aholkularitza emateko. Parte hartu dezakete Kontseiluaren gehiengoak hala proposatzen badu. Parte-hartze hori puntuala izan daiteke, eta Kontseiluak parte-hartze denbora mugatu dezake. Aditu horiek ahotsa izango dute, baina botorik ez.

3.4. Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoak kontuan hartuta, Euskararen Aholku Batzordea osatzeko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin (sexu biek, gutxienez, %40ko ordezkartza) neurriak hartuko dira. Lege horretan bertan jasotakoari jarraiki, kideak aukeratzeko prozesuan sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak, emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak ez dira inola kontseilu-kide gisa onartuko.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4. ARTIKULUA: KONTSEILUAN PARTE HARTZEA

4.1. Durangoko Euskararen Udal Kontseiluan parte hartu nahi duten elkarte, erakunde eta pertsona fisikoek Kontseiluko presidenteari bidaliko diote eskabidea. Horrekin batera, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten beharrezko agiriak bidaliko dituzte, baldin eta agiriok udaleko artxiboetan ez badaude.

Kontseiluko partaide izateko eskariak kontseiluak berak onartuko ditu, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu ondoren.

4.2. Elkarte edo erakundeek agiri hauek bidali beharko dituzte eskabidearekin batera:


- a) Elkarte edo erakundearen estatutuak edota gobernu organoen erabakiak, euskarako atalei edo sailei funtzionatzeko autonomia onartzen dietenak. Estatutuekin batera erregistro ofizial eskuduneko sarrera-zenbakiaren ziurtagiria edo frogagiria aurkeztu beharko da, eta beren beregi adierazi beharko da erregistro horretan izena eman zen eguna.
- b) Helbideratze sozialaren egiaztagiria, elkarte-kide kopurua eta zuzendaritza karguetan dauden pertsonen izena eta kargua.
- c) Durangoko Euskararen Udal Kontseiluan arituko den ordezkaria eta horren ordezkoa izendatzeko erabakiaren ziurtagiria

4.3. Norbere buruaren izenean parte hartu nahi duten pertsona fisikoek ondorengo datuak aurkeztu behar dituzte:

- a) Izena eta bi deitura.
- b) Kontseiluan parte hartzeko arrazoiak azaltzea.
- c) Gaian interesa dutenari buruzko adierazpena eta irabazi asmorik ez dutenekoa.
- d) Deialdiak jaso ahal izateko helbidea eta harremanetarako telefonoa.

4.4. Datu horietan aldaketaren bat gertatzen bada, Kontseiluaren Idazkaritzara jakinarazi beharko da, aldaketak jazo eta hilabete baten barruan.

4.5. Federazioren batek kontseiluan parte hartzen badu, federazio horretako kideak ezingo dira kontseiluko partaide izan euren aldetik.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4.6. Kontseiluan parte hartzeak honakoak dakartza: araudia onartzea, Kontseiluaren edukiei buruzko informazioa ematea dena delako elkarte edo erakundeari eta batzarretan hartutako konpromisoak betetzea.

4.7. Kontseiluan parte hartzeagatik ez da inolako ordain-saririk jasoko.


5. ARTIKULUA: KONTSEILUKO KIDETZA GALTZEA

5.1. Elkarateek edo erakundeek Durangoko Euskararen Udal Kontseiluko kidetza galduko dute arrazoi hauengatik:

- a) Norberaren borondateagatik.
- b) Elkaratea desegitea edo haren autonomia funtzionala galdu izanagatik, 3.1. b) artikuluari jarraituz.
- c) 3. artikuluan ezarritako beste baldintzaren bat ez betetzeagatik.
- d) Kontseiluak edo lan batzordeak egindako 10 bileren barruan, ordezkariak, hiru bider jarraian edo bost aldiz txandaka batzarretara bertaratzen ez badira. Esandako horrek udaleko ordezkarietzat ere balio du.
- e) 4.4. artikulua aipatzen dituen aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epean.
- f) Kontseiluaren araudia edo gobernuko organoen erabakiak behin eta berriz ez betetzea.
- g) Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jokabideak izatea, jarduerak egitea edo adierazpenak agertzea, eta Kontseilua ahoz eta botoarekin osatzen duten kideen bi herenak hala uste izatea.

5.2. Pertsona indibidualen kasuan, aurreko ataleko arrazoiak aplikatuko dira, baina letra izan ezik.

5.3. Kontseiluaren kidetza galtzea Kontseiluak berak erabakiko du dagokion espedientea tramitatu ondoren, eta honen berri emango zaio dena delako elkarteari edo pertsona indibidualari.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

IV. KAPITULUA: UDAL KONTSEILUAREN ORGANOAK

6. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN EGITURA

6.1. Durangoko Euskararen Udal Kontseiluak egitura hau izango du:

- a) Batzar Nagusia
- b) Presidentea
- c) Presidenteordea
- d) Lan batzordeak
- e) Idazkaria


7. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIA

7.1. Batzar Nagusia Kontseiluaren organo gorena da, eta honela dago eratuta: Presidentzia betetzen duen pertsona, Idazkaritza betetzen duena (udaleko euskara teknikaria) eta 3. artikuluan jasotako elkarte eta erakundeetako ordezkariak, pertsona indibidualak eta udal taldeetako ordezkariak.

7.2. Gainerako elkarte, federazio eta erakundeek, gehienez ere, bi ordezkari izango dituzte Batzar nagusian, eta Kontseiluko idazkariaren aurrean egiaztatuko dute zein den titularra eta zein ordezkoa, betiere, euren estatutuen arabera izendatutako pertsonak beharko dutelarik izan.

8. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN AHALMENAK

1. Kontseiluaren jarduera-lerro nagusiak ezartzea.
2. Urteko ekintza-plana ebaluatzea, eta, hala balegokio, onartzea, eta gauza bera kudeaketa-memoriari dagokionez.
3. Laguntasuna eskaintzea Durangoko Udalari urteko jarduera egitarauari dagokionez, norberaren inizatibari ekinez edo udaleko organoek hala eskatuz gero.
4. Kontseiluaren barruko arautegia eta funtzionamendurako gainerako arauak, bai eta horien aldaketak ere, onartzea.
5. Lan batzordeak izendatzea eta koordinatzea eta euren eginkizunak ikuskatzea.
6. Erakunde instituzionalen batek eskatzen duenean edo egoki dela uste duenean, Batzar Nagusiak gai zehatzei buruzko iritzia eman ahal izango ditu eta proiektu, programa, plan, xedapen orokor edo beste edozein jarduerari buruzko txostena egin ahal izango du.
7. Udaleko sail ezberdinei beharrezko ikusten dituen proposamenak egitea euskararen interesen alde egiteko eta sustatzeko. Egin beharreko guztietan diziplina anitzeko izaera bultzatuko da.



DURANGO


Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

8. Kontseiluari jakinarazten zaizkion euskara arloko salaketa diskriminatzaileak batu eta bideratu dagokion organoen aurrean
9. Udalbatzak arautegi hau aldatzeko udalaren sail eskudunari behar diren egintzak hastea proposatzea.
10. Entitate berriak sartzeko eskariak onartzea, bai eta barruan daudenak kanporatzea ere, 4. eta 5. artikuluek ezartzen duten moduan.

9. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

- 9.1. Ohiko Batzar Nagusia bi hilabeterik behin bilduko da gutxienez, presidenteak deialdia egin ondoren. Batzarrak udaletxean egingo dira.
- 9.2. Batzarra ohiz kanpo bilduko da presidenteak erabakitzen duenean, edo Batzar Nagusiko ordezkarien erdiak hala eskatzen badute.
Kontseiluaren Idazkaritzan eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik hasita zazpi egun naturaleko epea izango da Batzar Nagusi ezohikoaren deialdia egiteko, eta 15 egun naturaleko epea bilera egiteko.
- 9.3. Ohiko batzarrak, ez ohikoak bezala, gutxienez, 7 egun natural lehenago deituko dira. Presazkoen deialdia egiteko, ostera, gehienez ere 4 egun naturaleko epea izango da. Hala ere, deialdiaren premia Batzar Nagusiak berretsiko du.
- 9.4. Kontseiluko presidenteak egoki deritzen gaiekin eta proposatzen dizkieten gainerakoekin osatuko da gai-zerrenda. Edozein kasutan, proposamen horiek kontseiluko presidenteari bidali beharko zaizkio, bilera egin baino gutxienez 15 egun natural lehenago.
Zerrendan dauden gaiei buruzko dokumentazioa eztabaidarako eta, egoki denean, botaziorako oinarria izango da eta oso-osorik egon beharko da ordezkarien eskura Kontseiluko Idazkaritzan, jendea hartzeko orduetan.
- 9.5. Batzar Nagusia baliozkoa izateko, eskubide osokoko kideen herena bertaratu beharko da. Beti bertaratu beharko dira presidentea eta idazkaria, edo horien ordezkariak. Quorum hori bilera osoan beharko da.
Lehen deialdian ez badago quorum nahikorik, Batzar Nagusia ordu erdi geroago deituko da modu automatikoan, eta quorum berbera beharko da bilera balioarekin eratzeko.



DURANGO


Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- 9.6. Erabakiak adostasunez hartuko dira; bestela, botazio arrunta egingo da eskubide osoko kideen artean. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta botoa emateko eskubidea daukatenak abstenitu egin daitezke. Gai bati buruzko eztabaida hasi eta ordezkari bat edo bat baino gehiago falta badira, botazioan abstenitu egin direla ulertuko da. Botazio batean berdinketa dagoenean, berriro emango da botoa. Botoa pertsonala da eta ezin zaio inori utzi. Titularrak edo Kontseiluko Idazkaritzan behar bezala egiaztatuta dagoen ordezkariak eman beharko du botoa. Postaz emandako botoa ez da onartuko. Oro har, botoa publikoa izango da. Botoa isilpekoa izango da ordezkarien gehiengo osoak hala eskatzen duenean.
- 9.7. Batzarreko erabakiak, oro har, bertaratu diren eskubide osoko kideen gehiengo sinplez hartuko dira, 5.1.g) artikulua ezartzen duenaren kaltetan izan gabe. Hala ere, beren beregi zehazten diren kasuetan gehiengo osoa beharko da. Gehiengo sinplea izango da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Gehiengo osoa izango da baiezko botoak Kontseiluko kide diren erakunde kopuruaren erdia baino gehiago direnean. Edozein modutan, kontseilu sektorialen izaera aintzat hartuz, Batzar Nagusiaren akordioek proposamen ez lotesleen izaera izango dute udal administrazioarentzat.
- 9.8. Beharrezko ikusiz gero, Batzar Nagusira udaleko beste teknikari batzuk bertaratu ahalko dira, eta baita eztabaidatuko diren gaietan adituak direlako edo eskumenak dauzkatelako gonbidatzen diren pertsonak ere. Hitz egin ahal izango dute, baina ezingo dute botorik eman. Gonbidapenak presidentziak egingo ditu, Kontseiluaren gehiengoak hala onartu ostean, eta bat etorrira 4.3. artikulua ezartzen duenarekin.

10. ARTIKULUA: PRESIDENTZIA

- 10.1. Presidentzia euskararen normalizaziorako politikak sustatzeko eta garatzeko eskumena duen udal saileko zinegotzi-delegatuak beteko du, alegia, horretarako alkatetzak izendatutako pertsonak.
- 10.2. Kontseiluko presidentzia beteko duen pertsona erakunde horretako ordezkari gorenaren izango da, eta hauek izango dira bere eskuduntzak:
- 1) Batzar Nagusirako deialdia egitea eta bilerako buru izatea.
 - 2) Batzar Nagusiko bilerak moderatzea, eztabaidak zuzentzea, erabakiak betetzea eta botazioetako berdinketak ebaztea.
 - 3) Arautegi hau interpretatzeko eta aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak ebaztea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4) Kontseiluaren berezko helburuak betetzen direla zaintzea eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dauden legeetara egokitzen direla zaintzea.

5) Batzar Nagusiak hartzen dituen erabakien berri ematea Korporazioari.

10.3. Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatuko balitz, Presidente presidenteordeak ordezkatzeko du, presidenteak idatzizko delegazioa egin eta gero, eta ordezkapenaren berri emango da bilkura hasitakoan.

11. ARTIKULUA: PRESIDENTEORDETZA

Presidenteordetza, kontseiluko kide batek hartuko du bere gain, eta elkarte-sarea ordezkatzeko du. Presidenteordea partaide guztien artean aukeratu da.

Presidenteordetza urtero txandakatuko da kontseiluan parte hartzen duten elkarte guztien artean.

Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatuko balitz, presidenteordea, elkarte beraren izenean kontseilura doan beste pertsonak ordezkatzeko du.

Presidenteordeak ondorengo funtzioak beteko ditu:

1. Lan batzordeko eta batzar nagusiko lanen koordinazioa
2. Euskara, kultura eta hezkuntza batzordeko batzarretara joatea, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe, udaleko euskara planen jarraipena egiteko, betiere, batzordeko gai-zerrendan biltzen diren gaiek bere parte-hartzea eskatzen badute eta presidenteak hala irizten badio.
3. Presidentziak delegatzen dizkion betebeharrak egitea


12. ARTIKULUA: LAN BATZORDEAK

12.1. Lan batzordeak azterketarako eta lanerako organoak dira, eta Kontseiluaren menpe daude. Euren zeregina emandako helburuetarako egokiak diren txostenak eta proposamenak egitea da. Egiten duten guztiaren berri eman beharko diote Batzar Nagusiari. Lan batzordeen proposamenak Batzar Nagusiak onartu beharko ditu Kontseiluak bere gain hartu ditzan.

12.2. Lan batzordeak iraunkorrak izan daitezke edo gai zehatzak aztertzeke eratu daitezke, eta txosten modura aurkeztuko zaizkio Batzar Nagusiari.

12.3. Lan Batzordeak Batzar Nagusiak sortuko ditu, ofizioz edo Batzar Nagusiko ordezkarien heren batek hala eskatzen duenean, eta izendapena, eraketa eta funtzionamendua finkatuko dira.

12.4. Lan batzordeen bilerak lan batzordea osatzen duten elkarte baten egoitzan egingo dira.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

13. ARTIKULUA: IDAZKARITZA

13.1. Idazkaria udaleko euskara arloko teknikarietako bat izango da.

13.2. Idazkaritzari dagozkio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa. Idazkaria Batzar Nagusian eta Lan Batzordeetan izango da. Idazkaria Kontseiluko Batzar Nagusiaren bileretan izango da, hitzarekin baina botorik gabe.

13.3. Hauek dira Idazkariaren funtzioak:

- 1) Presidentziak aginduta, bileretako deialdiak egitea eta bidaltzea.
- 2) Kontseiluko presidentziari laguntzea, bere eginbeharrekoiei dagozkien gaitan eta halaxe eskatzen dizkiotenean.
- 3) Bileretako aktak egitea.
- 4) Jakinarazpenak, datu-eskabideak, zuzenketak edo bere karguagatik jaso behar duen beste edozein idazki jasotzea.
- 5) Kontseilua osatzen duten erakundeen erregistroa, eta kide, ordezeko eta erakundeetako ordezkarien zerrenda eguneratuta edukitzea.
- 6) Batzar Nagusiaren erabakien ziurtagiriak egitea.
- 7) Kontseiluko organokoek eskatzen dizkieten eginbeharrak.


V. KAPITULUA: HERRITARREN PARTAIDETZA

14. ARTIKULUA

Durangoko Euskararen Udal Kontseiluak bere kudeaketaren berri eta bere jarduerarekin lotutako gaien berri emango die herritarrei; horretarako, bere eskueran dauden eta egoki deritzen baliabide eta informazio-ekintzak erabiliko ditu. Era berean, herritarren iritzia eskatu ahal izango du eztabaida, bilera, kontsulta, inkesta edo egoki deritzon beste edozein modu erabilita.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da toki araubidea arautzen duten oinarrien, apirilaren 2ko, 7/85 Legearen 70.2 artikulua ezartzen dituen baldintzak bete ondoren.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento
.....
Idazkaritza
Secretaría

ORDEZKARITZA

(1)..... jaun/andreak,
(2)....., adierazten du, ezinezkoa duelako
.....-ren-(e)an egingo den Durangoko Euskararen Udal
Kontseiluaren batzarrera joatea, eta horrexegatik, DELEGATU egiten diola bere
ordezkaritza eta botoa jaun/andreari.

Horrela agertzeko, sinatzen dute ondorengo dokumentua, Durangonko
.....-ren-(e)an

Sinatua. Jaun/Andrea.....
Delegatzailea

Sinatua. Jaun/Andrea.....
Delegatua

- (1) Delegatzailearen izen-abizenak.
(2) Kargua.